



BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

BOLETIN OFICIAL DE BIZKAIA

BAO. 139. zk. 2010, uztailak 22. Osteguna

— 18471 —

BOB núm. 139. Jueves, 22 de julio de 2010

Laburpena / Sumario

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa / Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Foru Aldundia / Diputación Foral

Nekazaritza Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 92/2010 FORU DEKRETUA, uztailaren 13koa, bertako abere-arrazen hazkuntza estentsiborako ekoizpen sistemak sustatzeko laguntzei buruzkoa.

18473

18473

Departamento de Agricultura

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 92/2010, de 13 de julio, de ayudas para el fomento de sistemas de producción de razas ganaderas autóctonas en regímenes extensivos.

Herri Lan Saila

«Premiazko lanak, BI-3448 errepideko 44 560 kilometro-puntuan, Aulestin» obra kontratuaren behin betiko adjudikazioa iragarkia.

18491

18491

Departamento de Obras Públicas

Anuncio de adjudicación definitiva del contrato de obras de emergencia en carretera BI-3448, p.k.44+560 en Aulesti.

II. Atala / Sección II

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Administrazioa / Administración Local del Territorio Histórico de Bizkaia

Bilboko Udala

18492

Ayuntamiento de Bilbao

Dimako Udala

18523

Ayuntamiento de Dima

Portugaleteko Udala

18530

Ayuntamiento de Portugalete

Basauriko Udala

18531

Ayuntamiento de Basauri

Sestaoko Udala

18549

Ayuntamiento de Sestao

Igorreko Udala

18554

Ayuntamiento de Igorre

Trapagarango Udala

18555

Ayuntamiento de Valle de Trápaga

Gueñesko Udala

18555

Ayuntamiento de Gueñes

Sopelanako Udala

18556

Ayuntamiento de Sopelana

Bilbao-Bizkaiaiko Ur-Partzuergoa

18559

Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia

Bizkaiko Garraio Partzuergoa

18561

Consorcio de Transportes de Bizkaia

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

18561

Mancomunidad de Servicios del Txorierrri

Arratiako Udalen Mankomunitatea

18561

Arratiako Udalen Mankomunitatea

Udal Kirol Patronatua-Arene Kiroldegia (Bermeo)

18563

Patronato Municipal de Deportes-Polideportivo Arene (Bermeo)

IV. Atala / Sección IV

Estatuko Administrazio Orokorra / Administración General del Estado

Barne Ministerioa

- 18571** Ministerio de Trabajo e Inmigración
- 18617** Ministerio de Interior
- 18618** Ministerio de la Presidencia
- 18620** Ministerio de Medio Ambiente y Medio Rural y Marino

V. Atala / Sección V

Justizi Administrazioa / Administración de Justicia

- 18621** Juzgado de lo Social número 2 de Bilbao (Bizkaia)
- 18621** Juzgado de lo Social número 4 de Bilbao (Bizkaia)
- 18621** Juzgado de lo Social número 5 de Bilbao (Bizkaia)
- 18622** Juzgado de lo Social número 6 de Bilbao (Bizkaia)
- 18623** Juzgado de lo Social número 7 de Bilbao (Bizkaia)
- 18623** Juzgado de lo Social número 8 de Bilbao (Bizkaia)
- 18623** Juzgado de lo Social número 9 de Bilbao (Bizkaia)
- 18625** Juzgado de lo Social número 10 de Bilbao (Bizkaia)
- 18626** Juzgado de Instrucción número 3 de Bilbao (Bizkaia)
- 18626** Juzgado de Primera Instancia e Instrucción número 1 de Gernika-Lumo (Bizkaia)
- 18627** Juzgado de Primera Instancia e Instrucción número 2 de Balmaseda (Bizkaia)

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Foru Aldundia / Diputación Foral

Nekazaritza Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 92/2010 FORU DEKRETUA, uztailaren 13koa, bertako abere-arrazen hazkuntza estentsiborako ekoizpen sistemak sustatzeko laguntzei buruzkoa.

1996. urtean Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO) Erroman egin zuen elikadurari buruzko Mundu Gailurra; izan ere, bertan ezarri zen, baliabide naturalak, eta horien artean abereen baliabide genetikoa, mundu osoan artatu, hobetu eta modu iraunkorrean erabili behar direla. Gero, nazioarteko erakunde horren 1999-2015eko Esparru Estrategikoan ezarri zen nekazaritzak, abeltzaintzak, arrantzak eta basogintzak gero eta ugariagoa den eta gero eta urbanizatuago dauden munduko biztanleen beharrezan bete beharko dituztela; baina, era berean, etorkizuneko belaunaldiak aprobetxatu ahal izango dituzten baliabide naturalak ere babestu beharko dituztela. Bestalde, 2000. urtean egin zen Nazio Batuen Milurtekoko Adierazpeneko 7. helburua ingurumenaren iraunkortasuna izan zen eta, horren barruan, baliabide naturalen erabilera iraunkorra garapena lortu ahal izateko.

Europar Batasuneko Nekazaritzako Politika Bateratua 2003. urtean berritu zen eta, orduan, ingurune naturalarekin bat datorren eta horren baliabideak erabiltzen dituen nekazaritza-ekoizpenaren aldeko apustua egin zen. Landa eremuen ohiko garapenean aldaketa batzuk ezarri ziren, baita nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapen enpresak kudeatzeko moduak ere. Nekazaritzako elikagaien ekoizpenari buruzko Europako eredia deitzen zaio horri.

Kontsumitzaileek elikagaien gainean egindako eskarrietan ere aldaketa garrantzitsuak gertatu dira; kontsumitzaileek nahiago dituzte kalitate hobea izateaz gainera kalitate hori egiaztatuta duten produktuak, eta ohikoagoak diren beste produktuetatik ezberdintzeko ezaugarri berezile batzuk dituzten produktuak eskatzen dituzte.

Ondorioz, irizpide berri horiek aplikatzera bideratzen diren ahalgintzen bidez hasi dira herri administrazioak ekoizpen sektorearen erantzuna bultzatzen. Hau da, abeltzaintzari dagokionez abereen arraza hobetzen hasi da eta, horretarako, bertako arrazak ekoizpen sistema estentsiboak sustatzen hasi dira, betiere ingurune naturala eta abereen ongizatea errespetatuz.

Abeltzainek abereen higiena eta ongizatea hobetu eta ingurumena zaindu nahi dute, eta horretara ari dira bideratzen euren ekoizpen sistemak. Pixkanaka, indarrean dagoen legezko araudiak babesten duen nekazaritzako elikagaien kalitate bereziko sistemaren bat hartu dute, hala nola: Babestutako geografia-oharrak eta jatorri-deiturak, abeltzaintza ekologikoa, abeltzaintzako ekoizpen integratua edo bermatuta dauden berezitasun tradizionalak.

Abenduaren 21eko 1724/2007 Errege Dekretuan ezarri dira bertako abere-arrazen hazkuntza estentsiborako ekoizpen sistemak sustatzeko laguntzen oinarri-arauak.

Ildo horretan, eta azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 7.b) 2 artikuluan abeltzaintzari eta abereen osasunari buruz ematen zaizkion eskumenak aintzat hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiak foru dekretu honen bidez laguntzen araubidea ezarri du lur nahikoa duten ustiatuegat; alabaina, ustiatuegi ekoizpen-aukera horiek erabiliko dituztela bermatzen duen konpromisoa sinatu beharko dute Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta, horrez gain, xedapen honetan ezarritako guztiak bete beharko dituzte.

Departamento de Agricultura

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 92/2010, de 13 de julio, de ayudas para el fomento de sistemas de producción de razas ganaderas autóctonas en regímenes extensivos.

En 1996, la Cumbre Mundial de la Alimentación organizada por la Organización de la Agricultura y la Alimentación (FAO) de las Naciones Unidas en Roma, señaló como meta mundial la conservación, mejoramiento y uso sostenible de los recursos naturales, incluidos los recursos genéticos ganaderos. Posteriormente, en el Marco Estratégico 1999-2015 de la citada Organización Internacional, se indicaba que la agricultura, la ganadería, la pesca y la selvicultura deberán satisfacer las necesidades de una población mundial en aumento y cada día más urbanizada, protegiendo al mismo tiempo la base de los recursos naturales en beneficio de generaciones futuras. Por su parte, la Declaración del Milenio de Naciones Unidas, formulada en el año 2000, establecía como Objetivo 7 la sostenibilidad ambiental, que incluye la utilización sostenible de los recursos naturales para el desarrollo.

De acuerdo con todo ello, la reforma de la Política Agrícola Común de la Unión Europea iniciada en 2003 ha apostado por una producción agraria más acorde con el medio natural y la utilización de sus recursos, determinando cambios sustanciales en el tradicional desenvolvimiento de las áreas rurales y las formas de gestión empresarial de la explotación agrícola y ganadera. Es el llamado modelo europeo de producción agroalimentaria.

Por otra parte, también se asiste a importantes cambios en la demanda de alimentos por el consumidor, quien cada día más expresa su preferencia hacia productos no ya de la mayor calidad, sino hacia aquellos que la tengan contrastada e incluso esté adornada con aspectos diferenciadores respecto a otros más convencionales.

En consecuencia, las administraciones públicas han comenzado a estimular la respuesta del sector productor con esfuerzos encaminados a la aplicación de estos nuevos criterios que, en el caso de la ganadería, se traducen fundamentalmente en la mejora racial de la cabaña ganadera mediante el fomento de razas autóctonas y sistemas extensivos de producción bajo parámetros de respeto al entorno natural y al bienestar animal.

Así, los ganaderos están reorientando sus sistemas de producción hacia formas que mejoran las condiciones de higiene y bienestar animal y de preservación del medio ambiente, integrándose paulatinamente en alguno de los sistemas de calidad diferenciada agroalimentaria protegidos por la vigente normativa legal, tales como las Indicaciones Geográficas y Denominaciones de Origen Protegidas, la ganadería ecológica, la producción ganadera integrada o las Especialidades Tradicionales Garantizadas.

El Real Decreto 1724/2007, de 21 de diciembre, establece las bases reguladoras de las subvenciones destinadas al fomento de sistemas de producción de razas ganaderas autóctonas en regímenes extensivos.

En esta línea la Diputación Foral de Bizkaia por el presente Decreto Foral, en base a sus competencias sobre producción y sanidad animal contempladas en el artículo 7.b) 2 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, procede a implantar un régimen de ayudas a las explotaciones que cuenten con base territorial suficiente, suscriban un compromiso con la Diputación Foral de Bizkaia que patentes su reorientación hacia dichas formas de producción y cumplan los requisitos previstos en esta disposición.

Hori dela bide, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapenari, Antolaketari, Araubideari eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauko 17. eta 63.b) artikuluek ematen dizkidaten eskumenak erabilia, Nekazaritza Sailak proposatuta eta Foru Aldundiak bi mila eta hamarreko uztailaren hamahiruko bileran eztabaidatu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.—*Xedea*

Foru dekretu honen xedea da bertako abere-arrazen ekoizpen sistemak sustatzera bideratuko diren diru-laguntzak lehia askearen bidez emateko oinarri-arauak ezartzea. Izan ere, sistema horiek egungo baliabide naturalekin bat etorri behar dute, hau da, baliabideen zentzuzko erabilera egin behar da kalitatezko produktuak lortzeko eta Bizkaiko abereak hobetzeko.

2. artikulua.—*Definizioak*

Foru Dekretu honen ondorioetarako:

- a) Agintari eskuduna: Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saila.
- b) Ustiategia: Abeltzaintzarako ustiategien erregistro orokorra ezarri eta arautu duen martxoaren 26ko 479/2004 Errege Dekretuko 2. artikuluan zehazten direnak.
- c) Euskal arraza: Euskal Herriko abere-arrazen katalogo ofiziala sortu duen abenduaren 26ko 373/2001 Dekretuaren arabera sailkatu den arraza.

3. artikulua.—*Onuradunak*

1. Laguntza horien onuradun izango dira abeltzaintzako ustiategien titular diren pertsona fisikoak edo juridikoak, baldin eta martxoaren 26ko 479/2004 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat etorri erregistratuta badaude eta haien jarduera errege dekretu horretako 4.1. artikuluan jasotakoekin bat badator.

Foru dekretu hau aplikatzeko, ondasun erkidego edo jaraunspenezko erkidegoenak diren nekazaritzako ustiategiak elkarte-ustiategizat hartuko dira eta titularrak pertsona juridikoa izango da.

2. Onuradunek xedapen honetan ezartzen diren baldintzak bete behar dituzte.

3. Laguntzak jaso ahal izateko, foru dekretu honetan sartzen diren abeltzaintzako ustiategiak Bizkaiko Lurralde Historikoko Abeltzaintzako Ustiategien Erregistroan egon behar dira inskribatuta eta, horrez gain, azalaren aitortpena egin behar dute urtero. Azalera Lursailen Identifikazio Geografikoko Sistemari (SIGPAC) zehaztu behar dira indarreko erabilerean arabera, eta Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) osatzen duten lurralde historikoetan kokatu behar dira.

4. Onuradunek Bizkaiko Lurralde Historikoan eduki behar dute zerga egoitza.

4. artikulua.—*Diruz laguntzen den jarduera*

1. Diru-laguntza jaso ahal izango dute Euskal Herriko arrazako hazteko abereak dituzten abeltzaintzako ustiategiek, baldin eta ondoko ezaugarriak betetzen dituen abeltzaintzako ekoizpena egiten badute:

- a) Ingurumena eta ingurune naturala artatu eta hobetzeko joera izatea.
- b) Ustiatzen den bertako abere-arraza mantendu eta hobetzea.
- c) Aberearen higieena eta ongizatea behar bezala zaindus egitea.
- d) Abereen osasuna egokia dela eta baliabide naturaletan oinarritutako elikadura ematen zaiela bermatzea.

2. Ingurumenari, osasunari, ongizateari eta abereen identifikazioari lotutako oinarriko legedia betetzen duenari ez zaio diru-laguntzarik emango.

3. Aurrekontuko ekitaldi osoan zehar egiten diren jardueri emango zaizkie laguntzak.

En su virtud, en uso de las facultades conferidas por los artículos 17 y 63.b) de la Norma Foral 3/87, de 13 de febrero sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, a Propuesta del Departamento de Agricultura y previa deliberación de la Diputación Foral en su reunión de trece de julio de dos mil diez,

DISPONGO:

Artículo 1.—*Objeto*

Este Decreto Foral tiene por objeto establecer las bases reguladoras para la concesión de subvenciones, en régimen de libre concurrencia, para el fomento de sistemas de producción de razas ganaderas autóctonas compatibles con los recursos naturales disponibles, a través de la utilización racional de los mismos, con fines a la obtención de productos de calidad y a la mejora de la cabaña ganadera vizcaína.

Artículo 2.—*Definiciones*

A los efectos de este Decreto Foral se entenderá por:

- a) Autoridad competente: El Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia.
- b) Explotación: Las definidas en el artículo 2 del Real Decreto 479/2004, de 26 de marzo, por el que se establece y regula el registro general de explotaciones ganaderas.
- c) Raza autóctona vasca: Aquella raza clasificada como tal de acuerdo con el Decreto 373/2001, de 26 de diciembre, por el que se crea el Catálogo Oficial de Razas autóctonas vascas.

Artículo 3.—*Personas beneficiarias*

1. Podrán ser beneficiarias de estas ayudas las personas físicas o jurídicas, titulares de explotaciones ganaderas, registradas conforme a lo dispuesto en el Real Decreto 479/2004, de 26 de marzo, cuya actividad se corresponda con las contempladas en el artículo 4.1 de este Real Decreto.

A los efectos de la aplicación del presente Decreto Foral, las explotaciones ganaderas que pertenezcan a una comunidad de bienes o hereditaria serán consideradas explotaciones asociativas cuyo titular sea una persona jurídica.

2. Las personas beneficiarias deberán cumplir los requisitos establecidos en esta disposición.

3. Para tener acceso a las ayudas, las explotaciones ganaderas previstas en este Decreto Foral deberán estar inscritas en el Registro de Explotaciones Ganaderas del Territorio Histórico de Bizkaia, y efectuarán anualmente la declaración de superficies correspondiente. Las superficies, serán las definidas según los usos vigentes en el Sistema de Identificación Geográfica de Parcelas (SIGPAC), y localizados en los territorios históricos que componen la Comunidad Autónoma Vasca (CAV).

4. Las personas beneficiarias deberán tener domicilio fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Artículo 4.—*Actividad subvencionada*

1. Podrán ser objeto de subvención las explotaciones ganaderas que cuenten con animales reproductores pertenecientes a razas autóctonas vascas y estén orientadas a la consecución de una producción ganadera que:

- a) Propenda a la conservación y mejora del medio ambiente y el entorno natural.
- b) Provea a la conservación y mejora de la raza ganadera autóctona explotada.
- c) Se realice en adecuadas condiciones de higiene y bienestar animal.
- d) Garantice una sanidad animal adecuada y una alimentación del ganado fundamentada en recursos naturales.

2. El cumplimiento de la legislación básica en materia de medio ambiente, sanidad, bienestar e identificación animal no será, en ningún caso subvencionada.

3. Las ayudas se concederán a actividades realizadas durante todo el ejercicio presupuestario correspondiente.

5. artikulua.—Betekizunak eta konpromisoak

1. Bizkaiko Foru Aldundiak ezartzen dituen programetan sartu nahi duten abeltzaintzako ustiatagietako titularrek hurrengo betekizunak bete behar izango dituzte:

a) Abeltzaintzako ekoizpen, ingurumen eta gizarte funtzioak eta abereen ongizatea jasotzen dituen kudeaketa sistema aplikatu behar dute ustiatagietan, eranskinean ezarritakoa betez.

b) Batasunean abeltzaintzako ekoizpen sektore bakoitzerako ezartzen diren higiene praktika zuzenen gidak bete behar dituzte, animalia jatorriko elikagaien higienari buruzko arau zehatzak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2004ko apirilaren 29ko 853/2004 (EE) Araudiak ezarritakoarekin bat etorritik. Horrelakorik ez badago, Estatuko edo autonomia-erki-degoko (halakorik dagoenean) higiene praktika zuzenen gidak aplikatuko dira.

c) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta eduki behar dituzte, indarreko araudia betez.

d) Ustiapen plana aurkeztu behar dute; plan horretan, gutxienez, 7.2. artikuluan ezarritakoa jasoko da eta planaren bideragarritasun ekonomikoa frogatzeko modukoa izan behar da.

e) Euskal Herriko bertako arrazetako hazteko abereak izan behar dituzte eta, halaber, abeltzaintzako ekoizpenerako behar diren baliabide naturalak sortzeko lurralde-azalera eduki behar dute. Mendi publikoetako larreak erabiltzen direnean, ustiatagietako titularrek ezinbestean errespetatu beharko du larreen neguko hutsunea. Hasierako kontratuan hitzartutako eremuak ezin dira txikitu. Salbuespena: Azalaren aitortzean aldaketak gerta daitezke onuradunaren esku ez dauden arrazoiengatik, esaterako aprobetamendu esku-bideak edo errentamenduak amaitzeagatik, besteak beste; hala gertatzen bada, primak lurren azalera berrira doitu behar dira.

2. Era berean, ustiatagietako titularrek Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailarekin konpromiso formal bat hartuko dute: Aurreko betekizunak bost urtean zehar beteko dituzte, eskudun agintari horrek ezartzen duen inprimakiaren arabera.

6. artikulua.—Laguntzen zenbatekoa, bateragarritasuna eta mugak

1. Dekretu honetan ezartzen diren laguntzak eta beste edozein herri administrazioak xede berarekin ezartzen dituenak bateragarriak izango dira; baina, horrelakoetan, alde aurretik Bizkaiko Foru Aldundiari baimena eskatu beharko zaio.

2. Foru dekretu honetan ezartzen diren laguntzen zenbatekoak, gehienez, honako hauek izango dira:

a) 50 euro, sustatu behar den bertako arrazako hazteko abereen ALU bakoitzeko; zenbateko hori jasoko dute etekinen kontroliek egiten ez duten ustiatagiek.

b) 100 euro, sustatu behar den bertako arrazako hazteko abereen ALU bakoitzeko; zenbateko hori jasoko dute etekinen kontrola eta Hobekuntza Genetikorako Plana behar bezala aplikatzen dituzten ustiatagiek.

c) 130 euro, babes berezikoa den bertako arrazako hazteko abereen ALU bakoitzeko.

Abeltzaintzako ustiatagi bakoitzari, gehienez, 6.000 euroko laguntza emango zaio.

3. Onuradun bakoitzak ondoz ondoko bost ekitalditan zehar jaso dezake, gehienez, laguntza hori; baina horretarako, lehenbizi, urtero aurkeztu beharko du 5.2. artikuluan ezartzen den konpromisoaren berritzea konpromisoa egin den organo beraren aurrean.

4. Foru dekretu honetan ezarritako laguntzak lehia askearen araubidean izapidetuko dira, herri onurako arrazoiengatik. Izan ere, laguntza egokien araubide bati esker, nekazariak gizarte osoari eskaintzen dioten benetako zeregin batean jardun dezakete, gero eta garrantzitsuagoa den ingurumena eta baliabide naturalak babesteko eta inguru naturala eta paisaia iraunarazteko beharrek bat datozen ekoizpen erak sartuz edo mantenduz. Gainerakoan, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Oro-

Artículo 5.—Requisitos y compromisos

1. Para que los y las titulares de las explotaciones ganaderas puedan ser incluidos/as en los programas establecidos por la Diputación Foral de Bizkaia al efecto, deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Aplicar en sus explotaciones un sistema de gestión que contemple las funciones productivas, medioambientales y sociales de la ganadería, así como el bienestar de los animales, de acuerdo con lo establecido en el anexo.

b) Cumplir con las guías de prácticas correctas de higiene establecidas para cada sector productor ganadero a nivel comunitario, tal y como establece el Reglamento (CE) número 853/2004 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 29 de abril de 2004, por el que se establecen normas específicas de higiene de los alimentos de origen animal. En su ausencia, serán de aplicación las guías de prácticas correctas de higiene estatales o, en su defecto, las existentes a nivel autonómico.

c) Estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la seguridad social, conforme a la normativa vigente.

d) Presentar un plan de explotación que incluirá como mínimo lo previsto en el artículo 7.2 y resulte justificativo de la viabilidad económica de la misma.

e) Contar con ganado reproductor perteneciente a razas autóctonas vascas y disponer de superficie territorial suficiente generadora de los recursos naturales necesarios para la producción ganadera a que se destina. En aquellos casos en que se utilicen pastos en montes públicos, el o la titular deberá respetar de forma inexcusable el vacío invernal de los pastizales. No se podrán reducir las superficies comprometidas en el contrato inicial, salvo cambios que se efectúen en la declaración de superficies por razones ajenas al beneficiario, tales como finalización de derechos de aprovechamientos, arrendamientos, etc., ... en cuyo caso se ajustarán las primas a la nueva extensión de terreno.

2. Asimismo, los y las titulares de las explotaciones deberán comprometerse formalmente con el Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia a cumplir los requisitos anteriores, durante un periodo de cinco años, según el formulario establecido por dicha autoridad competente.

Artículo 6.—Cuantía, compatibilidad y límites de las ayudas

1. Las ayudas previstas en este Decreto serán compatibles con aquellas otras que establezca con el mismo objeto, en su caso, cualquier otra administración pública, previa autorización de la Diputación Foral de Bizkaia.

2. La cuantía de las ayudas previstas en este Decreto Foral serán hasta:

a) 50 euros por UGM de animal reproductor reconocido como perteneciente a raza autóctona de fomento, en una explotación que no realice control de rendimientos.

b) 100 euros por UGM de animal reproductor reconocido como perteneciente a raza autóctona de fomento, en una explotación que lleve a cabo control de rendimientos y Plan de Mejora Genética de forma correcta.

c) 130 euros por UGM de animal reproductor reconocido como perteneciente a raza autóctona de protección especial.

La cuantía de las ayudas no podrá ser superior a 6.000 euros por explotación ganadera.

3. Cada beneficiario/a podrá percibir estas ayudas durante un periodo máximo de cinco ejercicios anuales consecutivos, previa presentación anual de la renovación del compromiso establecido en el artículo 5.2 ante el mismo órgano con el que se estableció.

4. La concesión de las ayudas previstas en este Decreto Foral se tramitarán en régimen de libre concurrencia, por razones de interés público, toda vez que, merced a un régimen de ayudas apropiadas, todos/as los/as agricultores/as pueden ejercer una auténtica función al servicio de la sociedad introduciendo o manteniendo métodos de producción compatibles con la necesidad cada vez mayor de proteger el medio ambiente y los recursos naturales y de conservar el espacio natural y el paisaje, resultando de aplicación en

korrean eta Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautu duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan xedaturikoa aplikatuko da, betiere ekitaldi ekonomiko bakoitzeko aurrekontu erabilgarrien mugak gainditu gabe.

7. artikulua.—*Eskabideak aurkeztea*

1. Ustiategiaren eskualdeko nekazaritza bulegoan aurkez daitezke eskabideak, bestela Abeltzaintza Zerbitzuan. Eskabideak aurkezteko, gainera, deialdiko inprimakietan ezarritakoa beteko da.

2. Eskabidearekin batera, gutxienez agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Ustiatagia deskribatzen duen memoria. Bertan, honakoak jaso behar dira: Instalazioak, abereen bizilekua, abere kopurua eta mota, eta abereentzat duten azalera. Abeltzaintzako ustiategian lan egiten duen pertsona kopurua ere zehaztuko da, UTHren arabera baloratuta, baita 9. artikuluan ezarritako irizpideak betetze aldera baloratu behar den beste edozein alderdi ere.

b) Ustiatagia kudeatzeko programa. Eranskinean ezartzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko balio izango duten hurrengo atalak zehaztuko dira programan:

- 1) Ingurumena.
- 2) Abereen ongizatea.
- 3) Ustiategiaren higieena, baita gizakiek kontsumitzeko ez diren animali jatorriko azpiproduktuen eta hondakinen kudeaketa ere.
- 4) Abereen elikadura.
- 5) Abereen osasuna.
- 6) Ekoizpena eta erabilera, eta hazkuntza eta ugalketa.

c) Aurreko 5. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen direlako agiriak. Eskabidearen ondorioetarako, foru dekretua argitaratzen den egunaren aurreko egunear hartuko da abereen zentsua. Abere zama eskabidea aurkezten den urteko hamabi hiletako batez bestekoa izango da, hileka zenbatuta.

3. Aurkeztutako eskabideetan akatsen bat aurkitzen bada edo eskabideak behar bezala aurkezten ez badira eskatzaileari hamar (10) eguneko epea emango zaio oker horiek zuzentzeko; halaber, ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskabidea atzera egin duela ulertuko dela eta hori ebazpen bidez ezarriko dela. Hori guztia, betiere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik (4/1999 Legeak emandako idazketan).

4. Eskabidea aurkezten denean eskatzaileak Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saila kudeatzen duten zerbitzuei baimena emango die Ogasun eta Finantza Sailean eta, hala badagokio, beste zerga administrazio batzuetan eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrean laguntzak emateko foru dekretu honetan eskatzen ziren bere egoerari buruzko beharrezko agiri guztiak eska ditzaten.

5. Eskabideak urtero aurkez daitezke, deialdi berezi baten bidez ezartzen diren epeen barruan.

8. artikulua.—*Instrukzioa, ebazpena eta ordainketa*

1. Abeltzaintza Zerbitzuak jaso eta izapidetuko ditu eskabideak baina Nekazaritzako foru diputatuak ebatziko ditu, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta sei hilabete igaro baino lehen. Epealdi horretan berariazko ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, eskaerari ezezkoa eman zaiola pentsatu ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko 44. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik (4/1999 Legeak ezarritako testuaren arabera).

2. Nekazaritzako Foru Sailak kontrolatu eta ordainduko ditu laguntzak.

todo lo demás lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y con el límite de las disponibilidades presupuestarias existentes en cada ejercicio económico.

Artículo 7.—*Presentación de solicitudes*

1. Las solicitudes se presentarán en la Oficina Comarcal Agraria correspondiente a la ubicación de la explotación o en el Servicio de ganadería y se cumplimentarán en los términos que establezca la correspondiente convocatoria, en los impresos establecidos al efecto.

2. Las solicitudes deberán acompañarse, al menos, de la siguiente documentación:

a) Memoria descriptiva de la explotación que incluya relación de las instalaciones, alojamientos ganaderos, número y tipo de animales y superficie disponible para los animales. Así mismo se especificarán los recursos humanos que dispone la explotación ganadera mediante la valoración en UTH, así como cualquier otro aspecto a efectos de su valoración conforme a los criterios establecidos en el artículo 9.

b) Programa de gestión de la explotación, en el que se especifiquen los siguientes ámbitos, a los efectos de verificación de los requisitos establecidos en el anexo:

- 1) Medio ambiente.
- 2) Bienestar de los animales.
- 3) Higiene de la explotación, incluyendo la gestión de los subproductos de origen animal no destinados al consumo humano y los residuos.
- 4) Alimentación de los animales.
- 5) Sanidad animal.
- 6) Producción y Manejo, incluyendo la cría y reproducción.

c) Acreditación del cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo 5. A efectos de solicitud, el censo de los animales se tomará a fecha del día inmediatamente anterior a la fecha de publicación del Decreto Foral. La carga ganadera será la media anual, tomada mes a mes, del año de presentación de la solicitud.

3. Si se advirtiera algún defecto o inexactitud en las solicitudes presentadas se requerirá a la persona solicitante a fin de que en un plazo de diez (10) días proceda a su subsanación, con indicación de que si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su solicitud mediante resolución dictada al efecto, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 71 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común en redacción dada por la Ley 4/1999.

4. La presentación de la solicitud conlleva la autorización de la persona solicitante a los Servicios Gestores del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia para recabar del Departamento de Hacienda y finanzas y en su caso, otras Administraciones Tributarias y de la Tesorería General de la Seguridad Social la emisión de certificados sobre su situación ante estos Organismos exigida en este Decreto Foral para la concesión de ayudas.

5. Las solicitudes podrán presentarse anualmente en los plazos que se establezcan mediante convocatoria específica.

Artículo 8.—*Instrucción, resolución y pago*

1. La recepción de solicitudes y tramitación, corresponderá al Servicio de Ganadería y serán resueltos por la diputada foral de Agricultura, en un plazo máximo de seis meses desde la finalización del plazo de presentación de la solicitud. Transcurrido el indicado plazo, sin haberse dictado y notificado Resolución expresa, las solicitudes se podrán entender desestimadas de conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común en la redacción dada por la Ley 4/1999.

2. El control y pago de las ayudas corresponderá al Departamento Foral de Agricultura.

3. Laguntza guztien zenbatekoak xede horrekin gehienez eman behar zen laguntzaren zenbatekoa gainditzen badu, foru dekretu honen arabera laguntza jasotzeko eskubidea duen onuradunen artean launduko da zenbatekoa. Horretarako, behar izanez gero, zenbatekoak gutxitu egingo dira.

4. Laguntza emateko ebazpenean kasu bakoitzerako baldintza bereziak ezarri ahal izango dira, eta onuradunek nahitaez bete behar izango dituzte.

9. artikulua.—*Betetzea frogatzea eta kontrolak*

Laguntzak jasotzen dituzten pertsonen horien xedea bete dutela eta jasotako funtsak aplikatu dituztela frogatu beharko dute. Horretarako, hartu duten konpromisoa bete dutela frogatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute laguntzak eman zituen agintariak zehaztutako epean eta moduan; hori gorabehera, agintari eskudunak egokitzat jotzen dituen kontrolak egingo ditu (kontrol administratiboak edo lurraren gainekoak).

10. artikulua.—*Onuradunen betebeharrak*

1. Foru dekretu honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradunek nahitaez bete behar dituzte maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 13. artikuluan oro har ezartzen diren betebeharrak eta jarraian adierazten direnak:

a) Emandako diru-laguntza onartu behar dute. Ildo horretan, diru-laguntza ematen delako jakinarazpena jaso eta hamar (10) egunetan onuradunak ez badio, berariaz eta idatziz, laguntza horri uko egiten edo argi eta garbi uko egiten diolako egintzarik ematen ez bada, laguntza onartzen dela ulertuko da.

b) Diru-laguntza ezartzen den xederako erabili behar dute, laguntza emateko araudian edo horren likidazioan ezarritako baldintzekin bat etorritz.

c) Sail honen kontura jasotako diru-laguntzen gainean dituzten eginkizunak gauzatzeari dagokionez eskatzen zaien informazioa eman beharko diote Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari eta Ogasun eta Finantza Sailari.

2. Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 17. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, ekitaldian zehar foru dekretu honen itzalpean ematen diren hiru mila (3.000) euroko edo hortik gorako diru-laguntzak urtero argitaratuko dira «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean».

Halaber, urtero, ekitaldian zehar ematen diren diru-laguntzen (berdin da horien zenbatekoa) zerrrenda Abeltzaintza Zerbitzuan erakutsiko da; zerrendan, gainera, onuradunak nortzuk izan diren eta «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratutako diru-laguntzetan adierazitako gainerakoak emango dira.

11. artikulua.—*Deialdia*

Urtero, foru dekretu honetan ezarritako laguntzen deialdia egingo da, horiek zein aurrekontu kredituren kontura egingo diren jakinaraziz. Deialdian, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 21.2. artikuluan ezartzen diren baldintzak zehaztuko dira eta, horrekin batera, prozeduren ebazpen eta jakinarazpenetarako gehieneko epeak eta administrazioaren isiltasunaren ondorioak argitaratuko dira, foru dekretu honekin bat etorritz.

12. artikulua.—*Ebazpena aldatzea, ez-betetzeak eta itzulketak*

1. Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetako bat aldatzen denean, laguntzaren xedea bete dela ulertzen bada, laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Era berean, nazioko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek diru-laguntzak ematen badituzte eta, zehazki, diruz lagun daitekeen gehieneko muga gainditzen bada, laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Kasu horretan, Nekazaritza Sailak aurrekoa aldatzeko ebazpena emango du eta, bertan, emandako diru-laguntzen zenbatekoak zehaztuko dira.

2. Onuradunak ez baditu betetzen foru dekretu honetan eta emandako diru-laguntza onetsi duen ebazpenean ezarritako baldintza eta helburu guztiak, edo baldintza guztiak bete gabe lortzen badu diru-laguntza, emandako laguntza jasotzeko eskubidea gal-

3. En el caso de que el volumen total de las ayudas supere el importe global máximo destinado a estas ayudas, se prorrateará el citado importe entre las personas beneficiarias que, con arreglo al presente Decreto Foral tengan derecho a ayudas, efectuándose las correspondientes minoraciones de cuantías.

4. La resolución de concesión de la ayuda podrá incluir condiciones específicas para cada caso, que serán de obligado cumplimiento para las personas beneficiarias.

Artículo 9.—*Justificación del cumplimiento y controles*

Las personas beneficiarias de las ayudas deberán justificar el cumplimiento de la finalidad para la que fueron concedidas y la aplicación de los fondos percibidos, mediante la presentación de la documentación correspondiente acreditativa del cumplimiento del compromiso adquirido, en el plazo y forma que determine la autoridad que las otorgó, sin perjuicio de los controles, administrativos o sobre el terreno, que pueda realizar la autoridad competente.

Artículo 10.—*Obligaciones de las personas beneficiarias*

1. Las personas beneficiarias de las subvenciones reguladas en este Decreto Foral deberán cumplir, en todo caso además de las obligaciones establecidas con carácter general en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, las siguientes:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de diez (10) días desde la fecha de recepción de la notificación de la concesión de la subvención la persona beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la misma así como en el caso de realización de actos inequívocos en tal sentido, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el destino concreto para el que se ha concedido y de conformidad con las condiciones establecidas en el Reglamento de concesión o de liquidación en su caso.

c) Facilitar a los Departamento de Agricultura y de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia, la Información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a este Departamento.

2. De conformidad con lo establecido en el artículo 17 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, se publicarán en el «Boletín Oficial de Bizkaia», con carácter anual, las subvenciones concedidas en el ejercicio al amparo de este Decreto Foral cuyo importe sea igual o superior a tres mil (3.000) euros.

Asimismo, y con la misma periodicidad, se expondrán en el Servicio de Ganadería relación de subvenciones concedidas en el ejercicio, cualquiera que sea su cuantía, con la expresión de las personas beneficiarias y demás aspectos incluidos en las subvenciones publicadas en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Artículo 11.—*Convocatoria*

Anualmente se efectuará convocatoria de las ayudas establecidas en este Decreto Foral junto con los créditos presupuestarios a los que se imputarán. La convocatoria contendrá los requisitos que se especifican en el artículo 21.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, y en ella se dará publicidad al plazo máximo establecido para las resoluciones y notificaciones de los procedimientos así como a los efectos que pueda producir el silencio administrativo, conforme a este Decreto Foral.

Artículo 12.—*Modificación de la resolución, incumplimiento y reintegro*

1. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión. Asimismo, la obtención concurrente de subvenciones otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, en particular en caso de superación del límite máximo de la cuantía subvencionable, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión. A estos efectos por el Departamento de Agricultura se adoptará la oportuna Resolución de Modificación en la que se aportarán los importes de las subvenciones concedidas.

2. El incumplimiento por parte de la persona beneficiaria de las condiciones y finalidad establecidas en este Decreto Foral y en la resolución aprobatoria respecto de la subvención concedida, así como su obtención sin reunir las condiciones requeridas para ello,

duko du eta, hala dagokionean, jasotako diru kopurua eta horren legezko korrituak itzuli beharko dizkio Bizkaiko Foru Ogasunari. Nolanahi ere, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautu duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan xedatutakoaren arabera bidezkoak diren ekintzak abiarazi ahal izango dira. Kopuru horiek diru-sarreratzat hartuko dira, kasuan kasuko lege eraginak izan ditzan.

3. Konpromisoa hartu den 5 urte horietan zehar ingurumenaren, abereen osasunaren, ongizatearen, elikaduraren edo identifikazioaren gaineko oinarritzko legedia betetzen ez bada, 5.2. artikularekin bat etorriz, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko da. Horrela gertatzen denean, gainera, jaso den laguntzaren (jaso bada) zenbateko osoa itzuli beharko da eta zenbateko horrekin batera legez ezartzen diren ordainketa egin zen egunaz geroko berandutza-interesak ere ordaindu beharko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra

1. 2010erako laguntzak deitu dira, foru dekretu honen babespean, lehia askearen araubidean eta 6.4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Diru-laguntza horien zenbateko osoak ezin du gainditu hurrengo aurrekontu-zuzkidurako zenbatekoa: 710101 programa, abelazkuntza eta abereen osasuna, 0203 atala, 443.00 eta 449.00 kontzeptuak, 2007/0643 proiektua («Abere saneamendurako kanpaina»). Era berean, indarreko legeriaren arabera aurrekontuetan aldaketaren bat egiten bada, ezin du gainditu eguneratu osteko zuzkiduren zenbatekoa.

2010eko ekitaldirako ehun eta laurogeita hamar mila (190.000) euro zainpetu dira guztira kontzeptu hauetan:

— 443.00/710101/02.03: 178.000,00 euro.

— 449.00/710101/02.03: 12.000,00 euro.

Hala ere, ebatzitako eskabideak kontuan hartuta, eta pertsona eta erakunde onuradunak era askotakoak izan daitezkeenez, foru dekretu honen bidez ezarritako zainpeketak xedapen gehigarri honetan azaldu diren lerroen eta partiden artean banatu ahal izango dira foru agindu bidez.

3. Laguntza hauei heltzeko eskabideak foru dekretu hau indarrean jarri eta hogeita hamar (30) eguneko epean aurkeztu ahal izango dira.

4. Diru-laguntza eskatzeko betekizunak, horiek frogatzeko modua eta aurkeztu beharreko agiriak foru dekretu honetan (5 eta 7. artikuluetan eta III. eranskinean) laguntza mota bakoitzerako ezarritakoak izango dira.

5. Espedienteak Abeltzaintza Zerbitzuak izapidetuko ditu eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak ebatziko ditu, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta 6 hilabete igaro baino lehen. Adierazitako epea amaitutakoan, ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskabideak gaitziritzitat joko dira, 4/1999 Legeak emandako idazkeran Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 44. artikulua xedatutakoarekin bat etorriz.

Ebazpenak banan-banan jakinaraziko zaizkie interesdunei, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 58 eta 59. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da juridikzio horretako administrazioarekiko auzien salan. Horretaz gainera, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Nekazaritza Saileko foru diputatuari.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena

Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio foru dekretu honetan ezarritakoa betearazteko behar diren xedapen eta egintza guztiak eman ditzan.

implicará la pérdida del derecho a percibir la ayuda concedida y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Hacienda Foral de Bizkaia las cantidades que hubiere percibido, así como los intereses legales que resulten de aplicación, sin perjuicio de las acciones que procedan conforme a lo dispuesto Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el Régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral. Dichas cantidades tendrán la consideración de ingresos a los efectos legales pertinentes.

3. El incumplimiento de la legislación básica en materia de medio ambiente, sanidad, bienestar, alimentación o identificación animal durante los 5 años comprometidos conforme el artículo 5.2 dará lugar a la pérdida del derecho a la subvención, con la obligación de devolución, si esta se hubiera concedido, del importe íntegro percibido incrementado con el interés de demora legalmente establecido desde el momento de su abono.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Única

1. Se convocan Ayudas para 2010 al amparo de este Decreto Foral, en régimen de libre concurrencia, según lo dispuesto en el artículo 6.4.

2. La cuantía conjunta de estas subvenciones no podrá superar el importe de las dotaciones presupuestarias del Programa 710101, de Producción y Sanidad Animal, Sección 0203, concepto 443.00 y 449.00, Proyecto 2007/0643 «Campaña Saneamiento Ganadero», o de las que resulten de su actualización en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias conforme a la legislación vigente.

Para el ejercicio correspondiente al año 2010 se establece una consignación presupuestaria estimada por importe de ciento noventa mil (190.000) euros distribuidos en los siguientes conceptos:

— 443.00/710101/02.03: 178.000,00 euros.

— 449.00/710101/02.03: 12.000,00 euros.

Ello, no obstante, en función de las solicitudes resueltas y dada la distinta naturaleza de las posibles personas y entidades beneficiarias, las citadas consignaciones establecidas en este Decreto Foral podrán redistribuirse mediante Orden Foral entre las distintas líneas y partidas señaladas en esta Disposición Adicional.

3. El plazo de presentación de solicitudes para acogerse a estas Ayudas será de treinta (30) días desde la entrada en vigor de este Decreto Foral.

4. Los requisitos para solicitar la subvención, forma de acreditarlos y documentación a aportar son los que se establecen en este Decreto Foral, en su artículo 5, 7 y Anexo III.

5. Los expedientes serán tramitados por el Servicio de Ganadería y resueltos por la diputada foral de Agricultura en un plazo máximo de 6 meses desde la finalización del plazo establecido para la presentación de solicitudes. Transcurrido el plazo indicado sin haberse dictado y notificado Resolución expresa, las solicitudes se podrán entender desestimadas de conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común en la redacción dada por la Ley 4/1999.

Las Resoluciones serán notificadas de forma individualizada a las personas interesadas de acuerdo con lo establecido en los artículos 58 y 59 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

La Resolución pondrá fin a la vía administrativa y contra la misma podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo competente de este Orden Jurisdiccional, sin perjuicio de la interposición, con carácter potestativo, de Recurso de Reposición ante la diputada foral del Departamento de Agricultura.

DISPOSICIONES FINALES

Primera

Se faculta a la diputada foral del Departamento de Agricultura para dictar las disposiciones y actos necesarios para la ejecución de lo dispuesto en este Decreto Foral.

Bigarrena

Foru dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2010eko uztailaren 13an.

Nekazaritzako foru diputatua,
IRENE PARDO PORTILLO

Ahaldun Nagusia,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

I. ERANSKINA

Abeltzaintzako ustiategiek abeltzaintzako ekoizpen sistema jakin batzuk sustatzeko bete behar dituzten betekizunak:

A) Laguntzak eskatu dituzten abeltzaintzako ustiategiek bete behar dituzten gutxieneko betekizunak

1. Ustiategiak Abeltzaintzarako Ustiategien Erregistro Orokorrean (REGA) egon behar dira erregistratuta; bertan, 479/2004 Errege Dekretuan ezarritako informazio guztia jaso behar dute eta ekoizpen eta ugalketarako sailkapena izango dute.

2. Ekoizpen sistema edukitzeko, abeltzaintzarako den eta erabiltzen den lur nahikoa izan behar dute.

3. Albaitari arduradunak gainbegiratzen duen programa higieniko-sanitarioa eduki eta aplikatu behar dute.

4. Baliabide naturalak oinarritzat hartzen dituen elikadura programa izango dute.

5. Onuradunek trebatzeko ikastaro jakin batzuetan parte hartu behar dute. Baina ez dute ikastaro horiek egin beharrik izango nekazaritza edo abeltzaintzako titulu akademikoa dutenek.

6. Abeltzaintzako jarduerak ingurune naturala zaintzeko joera izango du; izan ere, bereziki zainduko ditu hondakinen eta azpi-produktuen kudeaketa, uraren kontsumoa eta energia modu eraginkorrean erabiltzeko kudeaketa.

7. Gainera, abeltzaintzako ustiategiaren jarduerak honakoak bermatu behar ditu:

- Ekoizteko bideen zentzuzko kudeaketa.
- Inguru horretako elementuak artatu behar dituzte, betiere ingurune naturalarekin bat eginez.

B) Behi-, ardi- eta ahuntz-azienden ustiategiek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak:

1. Ustiategiak gehienez 1,5 Azienda Larri Unitate (ALU) izan behar ditu hektarea bakoitzeko. Abere kopurua kalkulatzeko, hain zuzen, hurrengo bihurteta taula erabiliko da:

- 24 hilabete baino gehiagoko behi-abere ar eta emeak: 1 ALU.
- 6 eta 24 hilabete arteko behi-abere ar eta emeak: 0,6 ALU.
- 6 hilabeterainoko behi-abere ar eta emeak: 0,2 ALU.
- Ardi-abereak: 0,15 ALU.
- Ahuntz-abereak: 0,15 ALU.

2. Ugalketarako abereen ehuneko 50a gutxienez genealogi liburuetan inskribatuta egon behar da, Bizkaiko Lurralde Historikoan modu ofizialean onartuta dagoen erakundeak kudeatuta; bestela, erakunde horrek berriaz onartu eta egiaztatu behar du arrazapatroian sartzen direla. Hori gorabehera, bost urteak amaitzen direnean ehuneko hori 80koa izateko konpromisoa hartu behar dute.

3. Ordezpen-abereen ehuneko 60a, gutxienez, ustiategikoa izango da, genealogi liburuetan inskribatutako bertako arraza-abereekin ordeztu behar direnean izan ezik, konpromisoa % 80an betetzeko xedez. Alabaina, baldintza hori ez da beteko albaitariaren aginduz huste sanitarioa egin behar denean, edo agintari eskudunek aitortutako hondamendi naturalak gertatu direlako ordezpen-abereak nahitaz kanpotik ekarri behar direnean.

4. Behi-espezieari dagokionez, honakoak ere bete behar dira:

- Txahalek gutxienez 24 hilabete izan behar dituzte lehenengo erditzea izateko.
- Abereak ezin dira saldu edoskitze naturalaren ostean 5 hilabete igaro baino lehen.

Segunda

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Bilbao, a 13 de julio de 2010.

La diputada foral de Agricultura,
IRENE PARDO PORTILLO

El Diputado General,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

ANEXO I

Requisitos exigibles a las explotaciones ganaderas para el fomento de determinados sistemas de producción ganadera

